

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak laguntza-ildo berri bat iragarri du 30 urte baino gutxiagoko pertsonen enpresa-proiektuetarako

*Sortu berri diren enpresei inbertsioen eta gizarte-segurantzako kuoten kostuaren % 50 diruz lagunduko zaie*

Jueves, 27 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak laneari ari da "neurri nabarmen eta zehatz" sorta bat abian jarri eta, hala, gazte ekintzaileei beren enpresa berriak abian jartzen laguntzeko. Neurri horien artean, alde batetik, egiten diren inbertsioen % 50 diruz laguntzea planteatzen da, eta bestetik, 30 urte baino gutxiagoko pertsonak sortutako enpresetarako gizarte-segurantzako kuoten kostuaren % 50a diruz laguntzea, negozio-plan sendo bat eta lanpostuak bi urtez mantentzeko konpromisoa hartzen dutenak.



Goicoechea kontseilaria Ekintzailearen Egunaren irekiera-ekitaldian.

Hala iragarri du gaur goizean Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria Lourdes Goicoechea Zubelzuk [Nafarroako Ekintzailearen Egunaren](#) inaugurazioan. Ekitaldi hori Gobernuak antolatzen du [Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa \(CEIN\)](#) enpresa publikoaren bitartez, eta bere diskurtsoan adierazi duenez, "krisia atzean uzteko espiritu ekintzailea sustatu behar da".

Industria eta Enplegu arloetako titularrak azaldu duenez, neurri horiez gain, Nafarroako Gobernuak ekimenak ezarri ditu enpresa berritzaileak abian jartzeko orduan ekintzaile berriei lagundu ahal izateko. 2011ko irailaren 30era arte, 85 enpresa berri sortu dira (haietako 20 izaera berritzailekoak dira), 192 lanpostu sortu dituzte eta 5,4 milioi euroko inbertsioa egitea eragin dute.



Ekintzailearen Egunaren irekiera-ekitaldia CEINen egoitzan.

Zifra horrek 2010ean sortutako enpresa guztien kopurua gainditu du: 65 enpresa; 126 enplegu sortu dituzte eta 4,1 milioi euroko inbertsioa egin da. Ekimen ekintzailerako laguntza-jarduera Cein erakunde

publikoaren bidez egiten da.

### **Helburu hori duten eta jada existitzen diren neurriak**

[Moderna Ekintzailearen Bekek](#) 31 proiektu bultzatu dute 2011n, eta 35 pertsonari beka eman die (2010ean 26 proiektu izan ziren eta 31 bekadunak). Haren zati handienak (% 39) ekonomia berdeari lotutako negozio-ideiak ziren.

Kapital publikoaren bidez enpresa horiei emandako finantza-laguntza [Start Up](#) arrisku kapitaleko sozietatearen eta [Enpresario Gazteen Funtsaren](#) bidez ematen da, Sodena, CEIN eta Enpresario Gazteen Erakundeak sustatuta; bi horiek 18 enpresatan parte hartzen dute 780.000 euroko inbertsioa eginez. Zehazki, Start Up-ek 12 enpresatan parte hartzen du (3 2011n sortu dira) eta Enpresario Gazteen Funtsak 6 enpresatan (bat, 2011n sortua).

Ekintzailearen Egunaren programa irizpide praktikoa eta parte-hartzaileekin prestatu da, eta bertan hamar ekitaldi baino gehiago sartu dira: berrikuntzako eta *networking*eko tailerrak, enpresan aplikatzeko joera globalei buruzko hitzaldi bat, eskualdeko sorkuntza-industrien inguruko mahai-ingurua, enpresario arrakastatsuekin egindako topaketak eta finantzaketa nahiz aholkularitzari buruzko espazioak. Jarduerak [Navarra Factori](#) espazioan antolatu dira.